

DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 265. zenbakia. 2018ko martxo



**Victoria Mallabiabarrena,
lirismoz betetako ahotsa**

DROGETEN

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

ITTURRI

Non irakurtzen duzu?

...tabernan, ile-apaindegian, liburutegian, euskaltegian, Abiapuntun, hortz klinikan, okindegian, anbulatorioan, Lobianon...

Etxean doan jaso nahi?

Bidali zure izen-abizenak eta helbidea drogeten@gmail.com helbidera eta hileroko hileroko etxeko buzoian jasoko duzu.

Ugaro

asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 17 43 44 • ugaro@ugaro.com

Agente eksklusibok:

Allianz 
Seguros

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa Elkarte
Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Dorleta Vidal,
Estibalitz González
eta Ekhi Velar.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Victoria Mallabiabarrena.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
eta Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:

Amaia Orbe, Victoria
Mallabiabarrena,
Asociación Gastronómica
Lobiano,
Folkez Blai,
Estibalitz González,
Ermua BHI, Stai Zitto,
Wang Conection,
Valentin Mugarza,
Iñigo Ugena,
Julene Bouzo,
Hiart Redondo
eta Ekhi Velar.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Piedi
Eizagirre eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Arraindunena (Entzuteko: www.alboka.es)

Alkate jaunak baimenarekin
bakian gera atera,
kalerik kale kantuan gatoz
karnabal zebratzera.
Urten guztiok balkoieta
arraindunak ikustera,
gauza ontxo bat eman leikizu
limosneria bazera
gauza ontxo bat eman leikizu
limosneria bazera.

Asko duenak jamoi eder bat
edo korda bat txorizo,
solomo zati lodi-lodi bat
asko estimau leikio.
Beste guztiak txakur txiki bat
hori bere ez da prezio,
zeuen senarrei tabernarako

lehenago eman leikio,
zeuen senarrei tabernarako
lehenago eman leikio.

Carmen kantuan,
Joxepa dantzan,
Nikolasaren barria
ondo pozikan
entzuten gagoz
beste kuadrilla guztia.
Sebastiana be zortzikuetan,
Anitaren komediak
ez dakit zeinek pasauko leuke
karnabal erdi hobia,
ez dakit zeinek pasauko leuke
karnabal erdi hobia.



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4

Amaia Orbe (Berlin, Alemania)

ELKARRIZKETA5-7

Jasone Osoro, idazlea

MALLABIAN ZER?8-9

Victoria Mallabiabarrena, soprano

ERMUAN ZER?10

Berbetan Jardunaldiak

MOTZEAN 11-13

Euskal Jaia ospatuko da apirilean

ERMUAN ZER?14

Stai Zittoren disko berria

KIROLAK.....15

Gure atletak gora

ESKOLEN TXOKOA ..16-17

Ermua BHIko albisteak

BOTEPRONTOAN18

Belen Justel

IRITZIA19

Lehenengotik, hirugarrenera

ANTZINAKOAK.....20

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

ZORION-AGURRAK.....21

Saldu, erosi edo agurtu

APIRILEKO AGENDA22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Amaia Orbe

la egun batetik bestera erabaki zuen Berlinera joatea Amaia Orbek. Etxepare Institutuko lan eskaintza jaso eta aste gutxitan euskara irakasten hasi zen Alemaniako hiriburuan. Urritik hona neguko ilunean pasa ditu hilabeteak ermuarrak, baina gustura dagoela nabari zaio bere ahotsean. Gainera, bere etxeko ateak zabalik utzi dizkigu, bizitza asko duen "hiri zoroa" bisitatzeko gonbidapena tarteko.

-Zergatik erabaki zenuen Alemaniara joatea?

Etxepare Institutuak Berlinerako euskara irakurleak behar zituela ikusi nuen kasualitatez urriaren hasieran eta izena eman nuen. Ez nuen gauza askorik espero, baina tira. Aste bitan zerbait esango zidatela aipatu zidaten eta erantzuna baiezkoa izan zen. Beraz, maleta hartu eta Berlinera etorri nintzen.

-la pentsatu barik?

Bai eta ez. Euskal Herrian gustura nengoen eta ia seguru nintzen ezezkoa jasoko nuela. "Eta baietz irteten bada?", galdetu nion buruari. "Ba aurrera!".

-Zenbat denbora geratzeko asmoa daukazu?

Bi urteko kontratua daukat. Urtebeterako joateko aukera ere baneukan, baina Berlinera iritsi nintzenean denbora gehiago geratu behar nintzela

ikusi nuen, hiria ondo ezagutzeko eta bertan nagoela aprobetxatzeko.

-Aurretik Berlinen egona zinen?

Ermuko Musika Eskolarekin etorri nintzen lehenengo aldiz, baina hiriaren eskola ikusteko aukera izan nuen bakarririk. Uda zen eta lakuak eta hiriko bizia ikusi genituen. Oraingoan neguan etorri naiz eta ikuspegia ezberdina da. Aukera asko duen hiria da Berlin. Bizitza asko dauka eta nahiko zoroa da. Abenturara etorri naiz, egia esan.

-Nola moldatzen zara alemanarekin?

Itzulpengintza ikasi nuen, baina alemana nahiko ahaztuta neukan hona etorri aurretik, denbora askoan erabili gabe nengoelako. Komunikatzeko gauza naiz, baina berriktan edo elkarrizketan ibiltzea zailagoa egiten zait. Hala ere,



hizkuntza zalea naiz eta egunerokotasunean erabiltzen dut, arazo barik.

-Eta alemanak nola moldatzen dira euskararekin?

Harritura geratu naiz! Euskal Herriatik hain urrun bizi den jendeak euskararekiko horrelako interesa edukitzea zoragarria da! Ikasleetako batzuk badute lotura Euskal Herriarekin bikotearengatik edo familiarengatik. Juanita Ibaibarriaga lehiaketara aurkezteko moduko idazlanak egiten dituzte batzuek! Euskara ikastea zaila dela esaten da, baina ez dakit nik. Hiztegi pixka batekin eta ezagutza gutxi batekin, jendea euskaraz egitera animatzen da hemen. Euskal

Herrian zorrotzegiak gara.

-Zer duzu gustukoan Berlinen?

Hasieran ez neukan harreman sarerik eta ez nituen euren kodeak ulertzen. Nire ekosistematik kanpo ikusten nuen neure burua, baina horrelako egoera batean nola erreakzionatzen dudana ikustea gustatu zait. Jende berria ezagutu dut, parranda egiteko toki aparta da eta janari turkoa benetan gozoa da hemen!

-Eta gutxien?

Argitasun falta. Gogorra da, baina hiriaren parte da. Hala ere, Berlineko jendea ni baino gehiago kezkatzen dela esango nuke.

Ekhi Belar

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Argazkia: Lander Garro.

Jasone Osoro, idazlea:

“Oso argi daukat saririk onena irakurleak ematen duen saria dela”

Jasone Osororen Jara liburua izan da 2017an Ermuko Liburutegian mailegu gehien izan dituena eta, horregatik, Ezekiel Etxebarria Saria jasoko du idazle elgoibartarrak. Ekitaldia Ermua BHIk Erraben daukan eraikinean izango da apirilaren 19an, osteguna, eta lehen mailako ikasle batzuek hartuko dute parte bertan. Sariari izena ematen dion Ezekiel Etxebarria XIX. mendean bizi zen Ermuan eta oso agerikoa izan zen bere euskaltzaletasuna. Herriko ohituren inguruan hainbat bertso idatzi zituen eta, 1996an, Ermuko abade etxean aurkitu ziren bertso-paper hauek guztiak Ermua eta Eitzako euskara liburuan jaso ziren.

- Ezekiel Etxebarria Saria jasoko duzu Ermuan, baina nolako esanahia du zuretzat sariak jasotzeak?

Oso argi daukat saririk onena irakurleak ematen duen saria dela. Kontuan edukita Ezekiel Etxebarria Saria Ermuko liburutegian mailegu gehien izan dituen liburuari ematen zaiola, oso pozgarria da. Biba Jara!

- Jaraz gain, Ezekiel izena ere oso presente dago zure liburuetan, zure istorioetako protagonista bat delako eta liburu bati titulu hori jarri diozulako. Kasualitate polita?

Bai, duda barik!

- Irakurlea kontuan hartzen duzu idazterako orduan?

Gaszte literatura idazten dudanean oso argi daukat niretzat helburua engantxatzea dela. Adin horretakoak, haur eta nerabeak, literaturara engantxatu behar ditugu. Orduan, eurak erakartzeko istorioak bilatzen saiatzen naiz. Batetik, hizkuntzari dagokionean liburu irakurterazak idazten saiatzen naiz. Dialogo asko sartzten dut, parrafo eta deskribapen oso luzeetan akzioa sartzten saiatzen naiz eta, gaiei dagokienean, nik adin

horretan zer irakurtzen nuen eta nire bizitza nolakoa zen begiratzen dut (nire ametsak, beldurrak, galderak...). Hori guztia ez da hainbeste aldatu. Urte asko pasa dira Jara idatzi nuenetik, 2001. urtekoa da, teknologiak-eta asko aldatu dira, baina azken finean nerabea izatea zer den ez da asko aldatu urte hauetan. Idazten dudanean hori transmititzen saiatzen naiz.

- Nondik abiatzen dira zure liburuetan jorrazten dituzun gai eta istorioak?

Jararen kasuan, nik 13 urte nituenean horrelakoa zen nire bizitza. Badaude errepikatzen diren gai batzuk, baina funtzionatzen dutenak: maitasuna eta lehenengo muxuaren inguruko guztia, gurasoekin egon ahal diren liskarrak, lagunaren arteko haserreak, eta abar. Abiapuntua bizitza izaten da ia beti. Gero, irudimena rekin nahasten dut guztia eta fikzioa sortzen da. Horrekin ez dut esan nahi liburuetan nire bizitza islatzen dudunik.

- Nolako prozesua jarraitzen duzu idazterako orduan? Nolabaiteko teknika edo erritualik jarraitzen duzu?

“Idazle bat irakurlea da lehenengo”

Ez, ez naiz batere maniatiakoa. Liburu bat idazten nagoenean egunero idazten saiatzen naiz, disziplina hori jartzen diot nire buruari, baina hortik aurrera ez daukat maniarik. Nire gelan daukat ordenagailua eta hor idazten dut. Hori bai, isiltasuna behar dut.

- Ariketa berezirik egiten duzu sormena lantzeko?

Sormena lantzeko edo irudimena garatzeko modu bakarra sormena eta irudimena erabiltzea da. Nola? Zure inguruan gertatzen den guztia-ri erreparatuz. Imaginatu bikotea eta biok nonbaitera joaten garela, nire senarra injineroa da eta inguruan aparatu elektrikorik badago, nola funtzionatzen duen ikusten egoten da; nik, ordea, jendeari erreparatzen diot. Nire memorian gordetzen dut hori guztia eta hortik abiatuta, irudimenari esker, istorioak sortzen ditut. Irakurteak ere asko laguntzen du. Idazle bat irakurlea

da lehenengo. Modu paraleloan ikasten duzu idazten eta irakurtzen, baina nire lehen oroitzapenak gehiago dira irakurtzen idazten baino. Horregatik, irakurteak ezinbestekoa da.

- Idazleen beldur nagusia zuzir geratzea dela esanahi da, paper zuriaren sindromea. Gertatu zaizu? Beldur hori daukazu?

Nire beldurrak fase ezberdinak izaten ditu. Lehenik, hasi aurretik; gero, egiten ari naizen bitartean; eta azkenik, bukatu osteko beldurra. Hasi aurretik, proiektu bat amaitu eta beste bat martxan jartzen duzunean, “agian ez zait ezer gehiago okurrituko”, “ez daukat kontatzeko moduko istoriorik”, “ez dut asmatzen”, pentsatzen duzu. Gero, idazten zaudenean gorabehera asko dago. Batzuetan oso emanikor eta sortzaile zaudete, eta istorio berak tira egiten du; eta besteetan, blokeatuta geratzen zara. Zergatik? Sormen aldetik trabatuta zaudelako, idatzi duzunak ezertarako balio ez duela pentsatzen duzulako, idatzitakoa txarra dela eta inori ez zaiola gustatuko uste duzulako... Idazketa bakarrik egiten duzun gauza bat da eta bakardade horrek pisua dauka. Amaieran, liburua bukatu eta gero, gure lana publikoki epaitua da, hor liburuaren ibilbidea hasten da eta bide horretan edozer gauzarekin egin dezakezu topo. Aldeko eta kontrako iritziak jasotzen dituzu, eta hori guztia eramaten jakin behar da, baina ez da erraza.

- Zure liburu asko haur eta nerabeei zuzenduta daude. Zergatik egin duzu aukeraketa hori?



Argazkia: Mainer Egues.

“Arnasa beste modu batean hartzeko modua da gazte literatura”

Beno, erdi eta erdi esango nuke. Helduentzat idazten hasi nintzen eta Zubia argitaletxeko Joseba Santxok proposatu zidan nerabeentzat zerbait idaztea. Hasieran ezetz esan nion, nire burua ez nuelako hor ikusten, baina azkenean baietz esan nion, erronka zalea naizelako. Ordutik, 18 urte daramatzat nerabeentzat idazten. Lau Jara daude, Ezekiel bilduman beste bi eta Eskularru beltzak-en laugarren libururekin nabil. Arnasa beste era batean hartzeko modua da gazte literatura. Helduentzat idazten dudanean gehiago kostatzen zait, lehen aipatu ditudan beldurak handiagoak dira, baina hortik ateratzen dena nire barruko da gehiago. Gazte literatura idazterakoan gehiago dibertitzen naiz eta oso esker oneko irakurleak aurkitu ditut. Eskoletan liburuei buruzko hitzaldiak ematen ibiltzen naiz eta gauza esker asko jasotzen ditut hor. Horrek gazte lite-

ratura idazten jarraitzeko energia ematen du. Liburu batek idazlea eta irakurlea behar ditu.

- **Teknologia berriak aipatu dituzu lehen. Gazteen irakurzaletasuna bultzatzeko ahalegin berezia behar da gaur egun?**

Nik 14 urte nituenean ere oso gutxi ginen irakurtzen genuenak. Antzeko proportzioa mantentzen dela esango nuke. Ez dut uste teknologia berriek joerak txarrera egitea eragin dutenik. Irakurtzeko modua aldatu da agian, barreiatzeko aukera gehiago dituzte orain. Era berean, euren irudimena kudeatu eta kanalizatzeko bideak ere badira teknologia berriak. Gauza guztiek dituzte bere alde onak eta ez hain onak, eta teknologia berriek beste horrebeste. Gauza biak uztartzen saiatu behar gara, baina ez dakit nola. Hala ere, paperezko bertsoak digitalak baino gehiago saltzen dira gaur egun.



Argazkia: Lander Garro.

- **Jararen lehen edizioa kaleratu zenetik 18 urte pasa dira. Sasoi berrietara egokitzen joan da liburua?**

Jara argitaratzen duen zigilua aldatu da eta, irudia ere berritzeaz gain, berriz irakurtzeko aukera izan dugu. Gauzak aldatzeko aukera geneukan, baina aldatuz gero istorio guztia moldatu beharko genukeen. Gauzak bere horretan uztearen aldekoa naiz. Gainera, egoerak ez dira hainbeste aldatu. Hasiera hartan mugikorrek bazeuden, baina sare sozialik ez. 12 urtekoei emozioak interesatzen zaizkie gehiago, beraz, hori ez dago traban.

- **Jararentzat 18 urte pasa dira, baina baita zuretzat**

ere. Aldaketarik nabaritu duzu zure buruari begiratzear?

Baietz pentsatzea nahi dut eta nire oraingo bilduman nabaritutako dela uste dut! Gauzak hobetzen saiatzen naiz beti eta oso kontziente naiz Jara berriz irakurriko banu, beste modu batean berridatziko nituela pentsatuko nuela. Gauzak egiteko modu bakarra gauzak egitea da, baina batzuetan asmatuko dugu eta beste batzuetan ez, lanbide guztietan gertatzen den bezala. Gaur egun idazten dudana orain dela 20 urte idatzitakoa baino zerbait hobea dela pentsatu nahi dut.

Ekhi Velar



Udal Euskaltegia

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua

ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

Hamburguesería
TITANIC



*Pintxo dastaketa
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Komunitateak

San Pelayo

*Aholkularitza
juridikoa*

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Victoria Mallabiabarrena soprano lirikue

Oin ez bakarrik. Aspalditik da Mallabixe herri musikazalie, banaka batzuentzat izanda musikie bizimodu eta asko eta askorentzat bizipoz. Tartien orrixotan ageri jakun andrakumie, Victoria Mallabiabarrena, XIX. mendien Madrilen eta Cuban ezagutzera emon zan herriko alaba soprano lirikue. Jaixo zala 150 urte pasau diala-eta, bere senidien, auzokide eta bihargiñen akorduekin osatu dogu ondorengue.

Aitxixoko Garai base-
rriko Pedro Mallabiabarrena eta Francisca Sarasketak izandako 9 seme-alabetatik bosgarrena izan zan Victoria, 1867ko abenduan 23en jaixotako umetxo politte. Neska gaztetute, Berrizko Mertzendarixen konbentuen mojatzarako bidie hartu eban, baiña lotura horrekin gustura ez eta Madril aldera alde eban. Erli-jiñotik urten, kapitalera abixau... orduko denporetarako, atrebentzia ez makala!

Berrizko konbentuen hasittek kantu-zaletasunai jarraituz, musikarako bidie hartu eban Madrilen: bere abotsa formatzeko kantuko

klasiek jaso eta, aldi berien, solfeokuek emoten zittuen, txintxin batzuk irabazi eta bizimodue aurrera etartzeko asmoz.

Abots zoragarrix ekan, soprano liriko tesiturakue. Madrilen ezagutu eban gerora bere senarra izango zan Antonio García Món, jaixotzaz gaillegue, Lugoko Viverokue. Senarran jatorrixai erreparaute, herrixen emaztiai *per sekula seculorum*-erako 'Gallegosie' gatzizena egokittuko otsien. Antonio antzerki enpresari-xue zan Cuban eta behin, Abadiñoko lagun batekin batera, Habanatik Madrilera etorri gazte talentuen bille;



hantxe alkar ezagutu eben Victoria eta berak. Haretxi esker, beste gazte batzukin batera, mallabittarrak Kubara bidaiatzeko aukerie izan eban. Bikote ein, Madrilen ezkondu eta Habanara bueltatu zien, luzeroko urtietan biziz bertan. Victoriak kapital bixen artien garatu eban bere profesinue. Esaten dabenez, gizonari ez ei jakon larregi gustatzen bere andrie jendaurrien kantuen ikustie; be-

rari bai, ordie. Eta eszenatokireko kontu haundiz zaitzen zittuen bere abotsa eta baitte bere itxurie be: erropak, oiñetakuek, buruko kapelak... dotore eta detallera beti. Iñork eitten ez ebanien, atzamarrokolak gorri-gorri margotute eta tabakue erretzen etorten zan Mallabire eta anaixek harrittute esaten ei otsala: "Hau andriau, zigarruek erre eta atzamarrokolak pinttaute... Zer da hau!".

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Zure
publizitatea:

943 179350

688 632876

drogeten@gmail.com

DROGETEN
DROGETEN
DROGETEN

ITTURRI
ITTURRI
ITTURRI

aldizkarian

Onduen herrixen

Bikotiek ez eban seme-ala-barik izan, baiña bai besueta-ko illara amaibakue: bataiatzera eruendako umetxuei bixen izenak ipintzie gustatzen ei jakuen eta halan ugarrittu zien euren inguruen Antonieuek eta Victoriak. Zahartzarue, lasaittasun bille etorritte, Mallabixen emon eben, Garai etxien. Eurekin ekarri eben piano zoragarri bat, Victoriak bere funtziñuetan erabillittako soiñeko edarrez betetako lau kuxa haundi, maleta pillue, kapela dotore mordo bat, mezedora bat... Etxe onduen, arta eta pinu eder bana euazen eta hantxe, haren kerizpien, jarri mezedoran eta gure soprane aspertu barik egoten zan kantuen, klin-klon eta klin-klon, bere burue atzera eta aurrera kulunkatuz. "Si Adelita se fuera con otro" kantatzen eban sarrixen, itsasoz beste aldeko harek lur estimauek akordure ekarri guran-edo. Adinien aurrera juen arren, abotsa fresko mantentzen eban eta zahartute ezagutu ebenak, ekin eta ekin bere kantau bihera eta abotsaren edertasune dake akorduen ondiñok. Eta pianue, hantxe beti, kuarto baztarrien, gaiñetiko haraz

trapu ederraz dotore askue ... Parien parau eta Victoria guriek patxaraz jotzen ei eban. Erropak, lurrera arteko buelo haundiko soiñeko eta gonak gehixenak, sitsak jan aurretik, lantzien behin bere krixadei soiñekotxo bana josteko ohitturie ekan harek tela morduokin. Kapelak, osterak, euren kajetan gordetzen zittuen ondiñok eta ahaztu barik plumeruaz hautsa kendu bihar izaten jakuen, itxuran mantentzeko.

Andra-gizonok ez zien azian azkenengo orrixie itxurie eta orduko denporetan zaldiz turetuko tribulixaz, karruajiaz bajatzen zien Eibar edo Ermure; haren hurrengo, epokako kotxe berde bat jirau eben, hau be euren txoferrak ebaltzen ebana. Haren etxien ez zan sekulo falta krixadarik ezta laguntzailerik. Pentsau: egunero periodikue goittik eta behera nork leidu be lotute eken! Baina horrek dotoreziokin batera, etxe kontran ortue eta oillo banaka batzuk, landan ardiexek, kortan txahal eta guztiko behixe...

Bere loiba batek esaten daben modure, Victoria egoera zibil guztietatik pasau zan bere bizixen: solterie,



mojie, andra ezkonduie eta alargune izan zan eta abeslarixe, ez edozelakue gaiñera! Mallabixen hil zan 1960ko otsailien 10ien, 92 urte kazela eta bere Antonio baino 20 urte beranduago. Bertoko kanposantuen dago lurperatute, García Món famelixien panteoien. Jasokunde Abesbatzak 25 urte betetzen dittula puntu eta bateron bati akordauko ete jako loratxo batzuk erutiaz herriko kanto-

re dan-danen aintzindari izan zan Aitxixoko alaba honi? Gustura hartuko dauz berak, gustatzen jakozen-eta!

Eskerrik asko Miren Mallabiarrena, Bixente Amesti, Olatz Olaizola, Rosario Iriondo, Ana Elustondo, Mila Elustondo, Maribi Elustondo eta Micaela Aranburu.

Igone Amesti
Estibalitz González

ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ZK

ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
"LAN BABESERAKO ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

Hitzaldiak eta bideo-jokoak Berbetan Jardunaldietan

Egun oro da garrantzitsua euskararentzat, baina aurten bizi dena berezia da. Egutegian gorritz markatutako eguna da azaroaren 23a, Euskaraldiaren eguna, Euskal Herria (eta euskaldunak dauden tokiak) hamaika egunez euskara hutsean hitz egiten jarriko duen egitasmoa. Hilabeteak falta dira oraindik, baina apirilean euskararentzat mugarririk diren jardunaldiak egingo dira Ermuan, Berbetan Jardunaldiak. Euskararen munduko hizlari konprometitu eta adituak izango ditugu herrian eta, gainera, gaztetxoek bideo-jokoekin euskaraz gozatzeko aukera izango dute.

Euskararen gaineko hausnarketa eta go-goetak egitera bultzatzen duen ekimena da Berbetan. 2000. urtean hasi ziren jardunaldiak eta denetarikoa gaiak landu dira bertan, beti ere euskara ardatz izanik. Lan-mundua, eskolaz kanpoko jarduerak, euskara batua eta euskalkien garrantzia, euskararen irakaskuntza, euskara eta gaztelaniaren arteko nahasketa, herri-komunikabideak, normalizazio prozesuan euskara teknikarien lidergoa, eta abar.

Aurtengo edizioan bi hitzaldi eskainiko dira. Apirilaren 10ean Amelia Barquin unibertsitate irakaslea ari-tuko da Lobianon 19:00etan. Barquin Mondragon Unibertsitateko kultura arteko hezkuntza irakaslea da eta hainbat liburua argitaratu ditu. Ikas-irakaskuntza testuinguru kultura anitzetan; hizkuntzen ikas-irakaskuntza testuinguru eleanitzetan; eta irakasleen pertzepzioak imigrazioaren eta ikasle

etorkinen inguruan ikertu izan ditu. Gainera, Emakundek 2008an argitaratu zuen Euskararen Erabilera Ez Sexista monografikoaren egilea da. Genero berdintasuna, hizkuntzaren erabilera, klasea eta jatorriarekin dituzten gaiak landu ditu batez ere, eta horren inguruan arituko da gurean ere, euskara ardatza edukita. Izan ere, 'Nola erabili euskara modu ez sexista batean?' izenburua daukan hitzaldia eskainiko du.

Bigarren hizlariak ez du ia aurkezpenik behar, aski ezaguna delako. Kike Amonarriz soziolinguista, umorista eta telebista-aurkezlea izango da Berbetan Jardunaldietako protagonista hilaren 17an 19:00etan Lobianon. 'Ermuan, euskaraz bizitzeko prest?', hori da Amonarrizek herriari botako dion galdera.

Herritarrak euskararen erabileraren inguruan aktibatzeke balio izateaz gain, ekimen honek beste helbu-

ru bat izango du. Parte-hartzaileak hasieran aipatutako Euskaraldiari eta Ermuan Bagara egitasmoari begira aktibatzea da saioaren xedea. "Belarriprest (ulermen maila nahiko izanda komunikaziorako oztoporik jarriko ez duena, nahiz eta berak gaztelania erabili) eta Ahobizi (edozein momentutan edonorekin euskaraz aritzeko prest dagoena) potentzialak animatu eta martxan jartzea da helburua", diote antolatzaileek. "Ekitetik egite- ra pasatu nahi dugu, herritarrak dinamika berri honetara gerturatzea". Amonarriz zein Barquinen saioetara joateko sarrera libre da eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

Gazteentzako bideo-joko saioa

Adin guztietako ermuarrei begira antolatzen da Berbetan eta, horregatik, apirilaren 24an 17:15ean KZgunean 'Game erauntsia, bideo-joko saioa' egingo da 10 eta 14 urte

bitarteko gazteentzat. Bideojokoei buruz euskaraz jarduteko sortu zen komunitatea da Game Erauntsia. Jokoei buruzko albiste eta berrikuntzak sareratzaz gain, txapelketak eta GETB izeneko web telebista saio bat ere plazaratzen dituzte gamerauntsia.eus webgunean, eta euskarazko bideo-joko saioa ekarriko dute Ermura.

Bertan parte-hartzeko plazak mugatuak dira, eta izen-ematea apirilaren 9tik 19ra bitartean egingo da a euskalbirusa@gmail.com helbidera idatziz edo WhatsApp mezua bidaliz 688632874 telefonora.

Ekhi Velar



Drogeteniturrri, 265 zk.



Euskal Jaia ospatuko da apirilaren 14 eta 15ean

41. EUSKAL JAIA ERMUAN

APRILAK 14, LARUNBATA:
 19:00 - DANTZA ERAKUSTALDIA (PLAZAN)
 - MIKELATS (ATARRABIA)
 - TXINDURRI (ERMUA)

20:00 - ERROMERIA
 22:00 - LARRAINDANTZA

APRILAK 15, IGANDEA:
 11:30 - KALEJIRAK HERRIAN ZEHA
 17:00 - DANTZA ERAKUSTALDIA
 18:30 - PLAZA DANTZA

Patxi Eta Konpania

ANTOLATZAILEAK: LAGUNTZAILEAK:

Udaberriarekin kalean dantzan eta festan ibiltzeko sasoi aproposagoa dator. Bada, Ermuan berehala egongo da aukera, izan ere, apirilaren 14 eta 15eko asteburuan 41. Euskal Jaia antolatuko du Txindurri Dantza eta Txistu taldeak. Egitarauari hasiera emateko, hilaren 14an, Mikelats (Atarrabia) eta Txindurri taldeak berak dantza erakustaldia eskainiko dute 19:00etan plazan. Gero, 20:00etan, erromeria egingo da Fan&Gorekin eta, egunari amaiera emateko, Larraindantzaren txanda iritsiko da 22:00etan. Hurrengo egunean, 15ean, goizean goizetik antolatu dira ekintzak. 11:00etatik 11:30era taldeen harrera eta hamarretakoa egingo da San Pelaion eta 11:30ean herriko kaleetan zehar ibiliko dira kalejiran. 14:00etan elkarreetan bazkalduko dute parte-hartzaileek eta 17:00etan

umeen alardea egingo da plazan. Asteburuari amaiera emateko, 18:30ean dantzaldia egongo da plazan Patxi eta Konpainiarekin.

Lomy Powerren lurrak salduko ditu Udalak etxebizitzak eta aparkalekuak egiteko

Promosa Ermuko Udalaren sustatzaile publikoak Lomy Powerren lurrak salduko ditu etxebizitza, garajeak eta txandakako-aparkaleku. Lehiaketa publikoan irten da proiektu hau eta Loiola Gestión Inmobiliaria sustatzaileari eman zaio 2,6 milioi euroren trukean. Momentuz behin-behineko proposamena ezarri da, baina lehen aurreikuspenen arabera 60 etxebizitza, 90 tokitako txandakako-aparkaleku bat, plaza bat eta 122 garaje-toki egingo dira. Ekimen honen bitartez, gainera, hainbat aldaketa estetiko egingo dira 'baskulako' autobus geltokiko gunean. Izan ere, Areitiora doan errepide azpitik pasatzeko pasabidea sortuko da.

INOCENCIO ALONSO ERTZAINARI AGURRA

Ermua astindu zuten istiluak gertatu ziren Bilboko San Mames zelai inguruan otsailaren 22. Athletic Clubek Moskuko Spartak Europa Leagueko neurketa hasi aurretik liskarrak izan ziren talde bien zaletuen artean, eta Inocencio Alonso ertzainak bizia galdu zuen bihotzekoak emanda bertan zerbitzuan zegoenean. Ermuarrak 51 urte zituen eta bere anaiaren laguntza eta babesa jaso zuen momentu oro, berarekin baitzen une horretan. Ermuarrak 15 minutuko isilunea eskaini zioten heriotza gertatu eta egun batera, eta Ermuko Udalak bere babesa eman zion aho batez.

IGNACIO PEREZ ARGAZKILARIARI ERASOA

Inocencio Alonso ertzainaren heriotza gertatu eta lau aste-ra, martxoaren 15ean, Ignacio Perez El Correo egunkariko argazkilaria ermuarrak Marsellako Olympique taldeko zale baten eraso jasan zuen Bilbon. Athletic Club eta talde frantsesaren arteko partidua-ren aurretik gertatu zen istilua, Perezek Bilboko Gran Vian zaletu frantziarrak grabatzen zituen bitartean. Zale batek Perez aurpegian jo eta telefono mugikorra lurrera bota zion.

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegia

Orain
KOTXEKO GILTZEN KOPIAK ere egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

Ermuko bost proiektu saritu ditu Gaztedi 2020 egitasmoak

Gaztedi 2020 gazteen enpresa-ideiak bultzatzeko sortutako egitasmoa da, besteak beste. Ermuko gazteek Durangaldeko Gaztediren barruan hartu dute parte proiektu honetan eta martxoaren 2an hainbat sari banatu ziren Izarra Centren. Guztira Ermuko bost proiektuk jaso dute Gaztedi 2020-ren babes eta, horrez gain, dirulaguntza bat ere eskuratu dute.



Teknologia berriekin zerikusia duten proiektuak garatu dituzte Ermuan batik bat. Lan-arrikuen inguruko aplikazioa garatzeagatik saria jaso du Damdaw proiektuak eta 1.000 euro eskuratu ditu. Pertsona bakoitzaren interesen arabera filtratutako herriaren informazioa jasotzeko aplikazio bat sortu du Ermuap-ek eta Gaztedi 2020-k 500 euroko saria eman dio horregatik. Entrenatzaile pertsonalaren papera egiten duen interfazea garatu dute Time Trainer proiektuko buruek eta 500 euro eraman dituzte. MyCareer proiektuak ere diru-kopuru bera eskuratu du hezkuntza- eta lan-orientazioan laguntzeko zerbitzu batekin. Eta azkenik, galdutako objektuak aurkitzen laguntzen duen Aurkitzen EH web plataforma eta aplikazioak beste 500 euro eskuratu ditu.

URETAKO BEHIN-BEHINEKO PLANA ONARTU DU UDALAK

Uretako lurren inguruko Hiri-Ordenazio Orokorraren Planaren behin-behineko aldaketa onartu zuen Udalak PSE, EAJ, PP eta Ermua Irabaziren aldeko botoekin, eta EH Bildu eta Ermua Ahal Da alderdien abstentzioarekin. Plan honen bitartez Uretako lur berriak jasoko ditu Udalak, lur horiek gero herriko enpresei edo lur-industrial horretan interesa dutenei eskaintzeko.

'Folkez Blai' lehiaketan izena emateko epea zabalik

Hainbat hilabete falta dira irailaren 14etik 16ra arte egingo den 'Folkez Blai' lehiaketaren XIII. ediziorako, baina maiatzaren 15era arte egongo da zabalik bertan parte hartu ahal izateko izen-ematea. Musika taldeek lau abestiz osatutako grabazioak aurkeztu beharko dituzte eta horietako bi originalak izan behar dira gutxienez (helbide honetara bidali beharko dira lanak: 'Folkez Blai XIII: Folk Taldeen Lehiaketa, Lobiano Kulturunea, Goienkale 10). Izenak adierazten duen moduan, folk musika lantzen duten taldeek hartu ahal izango dute parte lehiaketan, musika honek duen estilo eta modalitate guztiak aintzat hartuta. Gainera, taldeek ezin izango dituzte aurretik bi disko baino gehiago editatuta eduki.



Izena ematen duten talde guztien artean sei aukeratuko ditu epaimahaiak eta zuzenean joko dute iraileko emanaldietan. Jaialdian parte hartzen dutenen artean hainbat sari banatuko dira (3.000 euro irabazlearentzat eta 1500 euro bigarrenarentzat) eta saria jasotzen ez dutenek 400 euro eskuratuko dituzte gastuak ordaintzeko.

Bitsi-denda Tailer propioa Erloju-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

Frankfurt tabernak eskuratu du Kazolatxo Lehiaketa



Txerri iberikoa, won-ton pasta, teriyaki saltsa eta algekin egindako 'T-ibérico' izenburuko kazolatxoarekin irabazi du Frankfurt tabernak VIII. Kazolatxo Lehiaketa. Epaimahaiaren berbetan, "erabaki zaila izan da, ostalariek erakutsi duten maila handiak azken erabakia asko zaildu duelako". Sagarra Gastrobarrek eta Mendiola jatetxeak lortu dute bigarren saria, 'El putxero de Jumi' eta 'Migas de pastelero y crema de bacalao' kazolatxoekin hurrenez hurren. Gainera, epaimahaiak aipamen berezia egin dio Sirimirik aurkeztutako 'Amazonas' kazolatxoari. Belaustegi Jatetxeko Josu Mugerzak, Aitor Buendia kazetari gastronomikoak eta lehiaketaren antolakuntzan aritu den Jesus Portugalek osatu dute epaimahaia aurtengo edizioan. Lehiaketak mar txan iraun duen egunetan zehar eguraldia lagun izan ez bada ere, lehiaketaren inguruan sortzen den giroa goraiatu dute antolatzaileek. Gainera, parte-hartzaileei esker eman eta euren maila altuagatik zoriondu nahi izan dituzte.



'FIBERMUA' ZUNTZ-OPTIKA SAREA HANDITZEKO ERABAKIA

Lau urte dira Ermua eta Mallabian 'Fibermua' zuntz-optikoa jarri zela eta 1.250 bezerok gozaten dituzte Adamo, Esanline, Nubip eta Sarenetek eskaintzen dien konexio zerbitzuez. Orain, Promosa udal sozietate publikoak sarea egokituko du osagai berriagoak jartzeko eta instalakuntzen bideragarritasuna bermatu eta handitzeko. Telekomunikazio operadore berriak (handienak barne) herrira erakarri nahi dira ekimen honen bitartez, aukera horiek ermuar guztientzat mesedegarriak izango direlakoan. Etxebizitza eta garajeetan dauden beltz koloreko kutxetan egingo dira egokitzapenak eta lanekin apirilean hastea da Promosaren asmoa. Egokitzapenak egingo dituzten langileak behar bezala identifikatuta joango dira eta komunitate bakoitzari aldez aurretik abisatuko zaio.

BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina - Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua - Bizkaia

Horacio Decoración
TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraclodecoracion.com

Disko berria kaleratu du Stai Zitto

Hasieratik arrakastaren bidea jarraitu du Stai Zitto musika taldeak eta bere kideek ez dute bidaia amaitu nahi. Ermuko musika taldeak bigarren diskoa argitaratu berri du, 'Bidaia', eta orain arte jarraitu duten jarrera positiboarekin egingo diote aurre bere zaleei nahi dutena emateko. Durangoko Plateruena Kafe Antzokian egingo dute bigarren disko honen aurkezpena apirilaren 7an.

Maila handiko musikariak izango ditu bidelagun Stai Zitto musika talde ermuarrak bere disko berrian. 'Bidaia' da rock melodikoa lantzen duen taldearen bigarren diskoaren izenburua eta Aitor Gorosabel, Zuriñe Hidalgo eta Asier Fragas 'Furbah' artisten kolaborazioa jaso dute lan berria gauzatzeko orduan. Areetako (Getxo)

Pan-Pot Estudioak aukeratu dute diskoaren grabazioa egiteko eta Alberto Macias ibili da grabazioa gidatzen eta produkzio lanetan.

Diskoari izenburua ematen dion 'Bidaia' abestia izango da Stai Zittoren bigarren diskoaren lehen singlea, eta TAOM-ekin (The Arte Of Making) Urbasako Natur Parkean (Nafarroa) grabatutako bideoklipa ere aurkeztuko dute.



Stai Zittoko kideen nahia "jotzea eta jotzea" da, "Euskal Herriko txoko eta bazter guztietan". Momentuz, jakina da apirilaren 7an Durangoko Plateruena Kafe Antzokian disko berria aurkeztuko dutela. Ekitaldi honetarako lagun bereziak gonbidatu dituzte, eta sor-

presak eta kolaborazioak egongo dira. "Ospakizun handia izango da", euren berbetan.

Abesti berri eta kantu zaharrez osaturiko lana da 'Bidaia'. Izan ere, taldeak atzera bota du begirada eta euren lana beraiek nahi zuten bazter guztietara zabaltzeko ez dela adierazi dute. Horregatik osatu dute abesti zahar eta berriak nahastean dituen lan hau. Beraz, taldearen lau urteetako lana eta bizitza erakusten du 'Bidaia' diskoak.

Kantu berriek "doinu freskoak, melodia errazak eta erritmo biziko ereserkiak" ekartzen dituzte, Stai Zittoko kideen berbetan. "Esaten dugun guztiaren gaineko jarrera eta gogo bizia, eta irabazteko, espektatibak gaintzeko, harresiak lurrera botatzeko, positibotasunari dei eginez bizitzari eta askatasunari ozen kantatzeko", aldarria egiten du Stai Zittok.

Ekhi Velar



esonline[®]

+ @ + +

846 080 010
Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua
esonline.es



hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

Gure atletak gora

Aro ederra bizi du Ermuko atletismoak. Ez da nobedadea, azken urteotako bide onaren jarraipena baizik, baina bide on horren konfirmazioa ere bada. Emakumezko zein gizonezkoek saio onak egin dituzte azken txapelketetan eta anbizio handiz ekingo diote denboraldian zehar ezarrita dituzten helburuei.

Estatuko jabalina jaurtitzailer onenen artean dago Arantza Moreno. Gaztetatik erakutsi duen goranzko ibilbideari eutsi dio eta, are gehiago, aurrerapausoak ematen ari da. Gero eta helburu handiagoak ezartzen dizkio bere buruari eta modu ezin hobean erantzuten die erronkei.

Urtea hasi zenetik bere markak gora doaz lehiatzen den bakoitzean eta Neguko Jaurtiketen Espainiako Txapelketan, urrezko domina eskuratu zuen laugarren aldiz jarraian Montijon (Caceres). Gainera, bere arerioak baino luzeago jaurti zuen jabalina saiakera guztietan, bere nagusitasuna argi era-



Arantza Moreno

kutsiz. Leirian (Portugal) jokatu zen Jaurtiketen Europako Kopan ez zuen hain emaitza onik lortu (10. postuan amaitu zuen sailkapen orokorrean 53,73 metroko jaurtiketarekin), baina oro har sentazio onekin amaitu du neguko denboraldia.

Uztailaren 21 eta 22an Getafen (Madril) jokatu den Aire Libreko Espainiako Txapelketa da Morenok begi artean duen helburuetako bat. Bigarren postuan amaitu zuen iaz Lidia Paradaren atzetik (Estatuko jabalinaren etorkizuna Moreno eta Paradaren eskuetan dago) eta beste pauso bat gehiago eman nahi du aurten. Espainiako Txapelketaz gain, abuztuan Berlinen jokatu den Europako Txapelketan parte-hartzea du helburu ermuarrak, eta bertan ari-



Iñigo Ugena



Julene Bouzo Euskadiko Txapeldun

tzeko gutxieneko marka lortzea espero du.

Altuerari beldurrik gabe

Maila gorenera heltzeko bidean dauden beste bi neska ere badira Ermuan. Gaztetxoa da Julene Bouzo, 2003. urtekoa, baina talenturik ez zaio falta. Altuera jauziko 16 urtez azpikoen Euskadiko Txapelketa eskuratu berri du 1,55 metrotan jarritako listaia gainditu eta gero. Denboraldiari itxaropentsu begiratzeko balio dio txapel horrek eta udan Cas-

tellóko Espainiako Txapelketa da bere helburu nagusia.

Iñigo Ugena Julene Bouzo baino gorago iristen da, baina pertigaren laguntzarekin egiten du salto berak. Eta nola gainera! 18 urterekin 4. postua lortu zuen Ugenak Ourensean jokatu zen Pista Estaliko Espainiako Txapelketan eta zapo gozoarekin itzuli zen Galiziatik. Bere urteko markarik onena 4,65 metrokoa zen, baina ia 30 zentimetro gorago iritsi zen Ourensean, 4,91 metrora arte. Etorkizun handiko atleta da Ugena eta orain hurbilago ikusten ditu 5 metroak.

Ermuko hiru atleta hauek urte hasieran lortutako emaitzak herriko atleten mailaren froga txiki bat besterik ez dira. Atletismoak herrian duen maila handia da eta, batez ere, itxaropentsua.

Ekhi Velar

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

OSASUNA * ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

*Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!*

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 - Goienkale 12

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

“Orbea”-ra bisitan

Institutuko DBH 2ko ikasleak Orbea lan-
tegia bisitatzeko izan dira. Bizikletak egi-
teko erabiltzen dituzten materialak eta
muntaia metodoak aztertu dituzte. Bere-
ziki deigarria izan da koadroen kalitatea
kalibratzeko modua eta margotze roboten
lana. Joan-etorria oinez eginda, mugikor-
tasunerako aukera osasungarri eta jasan-
garrien ikuspegia zabaldu dute Orbean.



Eski irteera Batxilergo ikasleek

Otsailaren 26an, astelehena, Ermua-BHIko 1. eta 2. batxilergoko ikasle batzuk eski irteera egin genuen Valdezcarayra. Ikastaro labur baten ondoren, bertako pistetan gora eta behera aritu ginen. Tarteka golpe batzuk hartu genituen arren, oso gustura ibili ginen eta datorren urteko irteeraren zain gaude



Gela egonkorreko ikasleen irteera Bilbora

2018ko Urtarrilaren 24an, Ermua BHI-ko Gela Egonkorreko ikasleek, hezitzaileek eta irakasleek Bilbora txangoa egin zuten, garraio bide ezberdinak ezagutu eta erabiltzeko helburuarekin: trena, metroa eta tranbia. Hiruretarako Ermuan bazeunden ere, ezin esan gaizki pasa zutenik! Denak oso gustura bueltatu ziren, hamaiketakoa eta bazkariarekin tripa ederki beteta!



T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

ENKARGYAK
943 030 299



Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00



943 170474



ileapaindegia

Silvia

peluquería



688819336

Asier Serrano, idazlea:

“Lan intimista da nirea eta gure gizarteari idazten diot”

Asier Serranok (Eibar, 1975), Fernando Aramburu eta Arantxa Urretabizkairekin batera 2017ko Euskadi Literatura saria irabazi du. EH Sukarra taldeko letren egilea da, eta 1990eko hamarkadan sortutako Lorelei taldearen abeslari eta gidari izandakoa. Lubaki Banda literatura taldeko kide izan zen, beste zenbait idazlerekin batera: Harkaiz Cano, Garikoitz Berasaluze, Xabier Aldai eta Xabier Gantzarai, besteren artean. Poesia da Serranok betidanik jorratu duen esparrua.



- *Zer gertatu zen zu poesia munduan sartzeko? Txikitari pentsatu zenuen idazlea izango zinela?*

Eibarko Ignazio Zuloagan ikasi nuen. Ez nintzen bate-re ikasle ona, ez zitzaidan ikastea gustatzen eta oso motibazio gutxiarekin egoten nintzen klaseetan. Klase orduetan marrazten hasi nintzen, baina irakasleak kargu hartzen zidanez, idazteari ekin nion. Lehen idatziekin sentitzen nituen beharrei erantzuten zieten.

- *Zertan oinarritzen zara liburu berriak idazteko?*

Asko bidaiatu dut, bai fisiko baita emozionalki ere. Lan intimista da nirea eta gure gizarteari idazten diot, baina moztortuta beti: gerraz, etikaz, maitasunaz hitz egiten dut.

- *Noiz idazten duzu gehien, emozionalki ondo sentitzen zarenean edo triste zaudenean?*

Egunero idazten dut. Lo gutxi egiten dut, insomioa

izaten dut-eta. Horregatik, gauean ere idatzi egiten dut. Oso lur jota zaudenean ez da idazteko indarririk izaten. Normalean, hortik ateratzen zarenean idazten duzu.

- *Zer da poesia zuretzat?*

Jarrera bat da, begirada bat, gauza txikiak handitzearen gaitasuna. Poesiak, maila pertsonalean, asko eman dit, baina asko ere kendu dit. Idazleok gizartearikiko nolabaiteko konpromisoa daukagu, eta, batzuetan, horrek kalte egiten dizu.

- *Zure bizitza aldatu duen pasarterik badaukazu?*

2011n “prostituzio intelektuala” egin nuen. Dirua behar nuen eta lehiaketetan parte hartzen hasi nintzen. Lehiaketarekiko kontraesan handiak nituen, baina, sariak jaso ondoren, maite nauen jende asko dagoela konturatu naiz. Sari batek, diruaz gain, gaitasun afekti boia ere ematen dizu. Ho-

nek, batez ere, hunkitu ninduen.

- *Noiz erabakitzen duzu idazten ari zaren poema bukatuta dagoela?*

Poema berak esaten dizu. Badaude 5 minututan egiten diren poemak. Beste batzuk, berriz, bizitza osoan daude hor. Azken finean, itzulera bat da. Beti bukaeratik, minetik, hasten naiz eta min hori askatzen dut eta hortik abiatzen naiz. Zailtasunak gustatzen zaizkit: literaturaren genero gutxitu batean, poesia, eta, gainera, euskaraz. Magikoa da Euskal Herrian bizitzea, euskaldunok ardura berezia jarri baitugu gure kultura lantzean eta zaintzean.

- *Zein da zure lanik preziatuena? Zergatik?*

Ofizio-afizio zoragarri batekin aritzeko zorte handia daukat. Hizkuntzan eta hezkuntzan egiten dut lan eta nire lanean literaturaren interpretazio askea egiten dut. Literatura begietan,

laztanetan...dago. Zuek sortzen duzuen da literatura.

- *Espero zenuen baino ospe gehiago izan duzu?*

Errebelde zaren momentutik aldarrikapena egiten duzu. Idazleak ez gara horrek, “niretzat idazten dut” esaten denean, gezurra da. Idazleok erantzun bat espero dugu beti, horren zain egoten zara. Lehen, Asier Serranorentzat euskal kulturaren leku bat topatu nahi nuen, orain berriz, Euskal Herrian euskal kulturarentzat leku baten bila nabil.

- *EH sukarra musika taldearen letren egilea zara, zuk idatzi zenuen Argi ibili abestia?*

Hamasei-hamazazpi urtekin hasi nintzen EH Sukarrari letrak egiten. Harreman estua izan dut taldearekin. Mikel Gorosabel eta bion arteko “zubi hautsi”, “zubi eraiki” bat egon dela esan daiteke.

ERMUA BHIKO

2. Batxilergoko ikasleak



ANGEL AYESTARAN LEGARISTI

(2018ko otsailaren 25ean)

Alazne Ayestaran Drogeteniturriko kidearen aita

EUSKAL BIRUSEKO LAN TALDEA



BELEN JUSTEL

- Nolako lana egiten duzu kiroldegian?

Denetarik egiten dut. Hezkuntza Fisikoan lizentziatua naiz eta hasieran mantenu-gimnasia ematen hasi nintzen, baina gero Gorabidekoekin hasi nintzen gimnasia berezia ematen, helduei klaseak ematen ibili naiz, igerilekuan lan egin dut...

- Nahiago duzu gauza ezberdinetan aritzea?

Denbora askoan postu batean egoten bazara, erre egiten zara. Beraz, tokiz aldatzen ibiltzen gara kiroldegiko langileok. Orain pilates, hipopresibo eta body power klaseak ematen ditut eta gimnasioan ere banabil.

- Zer da kirola zuretzat?


Osasuna lortzeko jarduera moduan ikusten dut kirola. Gazteagoa nintzeanean gogorrago egiten nuen kirola, baina orain aldatu egin da kirolarekiko dudana pertzepzioa. Horregatik, gimnasia lasaia ematen dut orain.

- Kirol edo jarduera berriak irteten dira urtero. Kiroldegira ekartzen dituzue?

Nahiko aurreratuak gara eta gustatzen zaigun kirol edo jarduera baten berri badaukagu, ekarri egiten dugu.

- Betidanik ibili zara kirol munduan?

Txikitik atletismoan hasi nintzen eta Madrilen IVEF ikasi nuen gero. Atletismoko entrenatzaile nazionalaren titulua daukat, Eibarko Klub Deportiboan lan egin nuen klaseak ematen, eta hainbat txapelketetara joan naiz Euskadiko se-



Bere bizitza ezin da ulertu kirolrik gabe. Txikitatik dabil kirolarekin zerikusia dituzten gauzak egiten eta gazteagoa zenean edozein gauza egitera ausartzen zela adierazi digu Belen Justelek. Orain, ordea, beste helburu batekin egiten du kirola, bizitza osasuntsuagoa lortzeko asmoarekin. Gainera, bizikleta elektrikoa erosi berri duela aipatu digu. "Zoragarria da!". Polikiroldegian denetarik egin du eta gauzak ondo egitea gustatzen zaio, bestela agur!

lekzioarekin.

- Kirola egitea modan dago gaur egun?

Korrika egitea dago modan batez ere. Kirola ere, baina Ermuan kirol gutxi egiten da. Kiroldegiak 18 urte besterik ez ditu, beraz, ez dago kirola egite-

ko kultura sendorik, ibilbidea falta da. Gainera, jendearen inplikazio handiagoa falta da.

- Zein kirolean ibiltzen zara gusturen?

Egunero nago kiroldegian, beraz, nahiago dut aire zabalean kirola egi-

tea. Patinekin eta bizikletan ibiltzea gustatzen zait.

- Erronka zalea zara?

Lehen bai, baina orain osasuna dut helburu. Gaztetan oso ausarta nintzen, ez neukan bururik.

- Zerk lasaitzen zaitu?

Normalean eskulanak egiten ditut. Puntua, jostakintza... eta orain gantxiak egiten hasi naiz.

- Jatekoa zaintzen duzu?

Saiatzen naiz, oreka bilatzen dut. Badakit zaintzeko zer egin behar duan, baina gozo kontuak asko gustatzen zaizkit. Gainera, etxean egiten ditut!

- Jateko plazer gozo bat?

Dena! Hori da nire arazoa!

- Pelikula bat?

Bat aukeratzekotan, John Forden 'Gizon lasaia'. Zinea asko gustatzen zait eta sarritan joaten naiz zinemara. Joan den asteburuan, adibidez, ostiralean eta larunbatean joan nintzen. 'Errementari' ikusi nuen Eibarren, baina pena izan zen gazteleraz eman zutela.

- Bidaia bat?

Datorren urtean Italiara joango gara karabanarekin. Bi urterik behin atzerriara joaten gara oportetan.

- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Injustiziek.

- Etorkizunari zer eskatzen diozu?

Dirua (barreak). Ez, osasuna. Zoriontsua izatea eta osasuna edukitzea da nire helburua.

Ekhi Velar

Lehenengotik, hirugarrenera

Azken aldian, txikitako oroitzen bat darabilt buruan: aitarekin Merkatu Plazara erosketak egitera joaten nintzenekoa. Usain berezia du eraikin handi honek, nahasketa ugariz osatutakoa. Hezetasunarena, batzuetan, lur usaina zehatzago esateko, freskotasunarena. Bertan batzen diren baserritarrek euren porru eta zerbekin ekarritakoa. Solairu bat igota aldiz, itsasoaren aroma; tiok Ondarrutik ekarritakoa. Hala ere, gehien gogoratzen dudana askariko bokadilloak eta kafea biltzen direnekoa da. Nahasketa berezia pentsatu du norbaitek.

Bai, hala da, nahaste berezia ematen zen edifizio hartan. Usainez gain jende nahasketa ere gertatzen zen, pertsona anitzen arteko elkarbizitza; ahalmen hori zuen eraikinak. Alde batetik, zaintza lanetan ari ziren emakumeak elkartzen zituen, kontu kontari; bestalde, egunkaria erostera gerturatzen ziren puro erretzaileak ere baziren pareko postuan, badaezpada ere, urrunetik begira. Eskaileretan gora eta behera korrika genbiltzan bokadillodun haurron garasiek gure presentzia bermatzen zuten. Baziren solairu batetik bestera salto egitea ideia ona iruditzen zitzaizen kaskarrekodun haurrak ere.

Behean, beste pisu bat zegoen iluna eta zikina zena. Uste dut hara ausartenek baino ez zutela txangoa egiten.

Hau guztia euria egiten zuenean gertatzen zen. Nik uste nuen eguraldi ona zenean Merkatu Plaza itxi egiten zutela! Tamalez, koskortu nintzen eta ulertu nuen eguraldiak ez zuela eraikina ixteko ahalmenik. Konturatu nintzen Merkatu Plaza ixteko boterea berau hiltzen utzi zutenek baino ez zutela. Beste behin ere, herriarena zen eraikinarekin zer egin jakin ez eta usteltzen utzi zuten. Merkatalgunea egingo zutenaren zurrumurrua aditu zen Ermuko kaleetan, baita aparkalekuak egingo zituztela ere (kuriosoa etxeak egitearen ideia ez bururatzea!).

Hala ere, era batera edo bestera, Merkatuak irekita jarraitu du urte guzti hauetan zehar. Erdi hutsik, baina zutik eta zabalik. Gaur egun, hainbat dira azken urteotan bertan burutu izan diren ekintzak eta beste behin ere, hainbat motatakoa bertaratutako jendea. Besteak beste: herri bazkariak egin izan dira euskara aitzakiatzat hartuta edo, merkatariek ere aukera izan dute noizbait haien lekua izan zen hartara bueltatzeko. Nagusienek ospatu izan dituzte haien egunak hemen. Aisialdiaz



Hiart Redondo

eta kulturaz gozatzeko aukera antzaz eskaini dizkigu Plazak azkenaldian. Herriko eragileek bultzatutako ekimenak eta gehienak modu auto-gestionatuan egindako ekintzak.

Imajinatzen al duzue herriak gestionatuko lukeen espazioa? Txikitxo-enek jolasteko lekua izango lukete, gazteek haien nortasuna modu osuntsuan garatzeko aukera, baita helduekin eta nagusiekin batera kultura alternatiboaz gozatzeko tartea ere, lasai paseatzeko eta gustura egoteko lekua. Guztiok batu gaituen lekua izanik, erabaki dezagun guztion parte hartzeaz zertan bihurtu nahi dugun Merkatu Plaza. Ez dezagun Udalaren esku utzi herriak erabiliko duen espazioa!

arral
arral97.com

Tel.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

URRETA burdindenda

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Savrilaqintza
* Brikolajea	* Kit altzariak
* Errailak	

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiaturre, 2 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

**MALLABIA
1958**

León Iturriagagoitiaren taillarreko beharginak, hilean-hilean ipinitako dirutxoarekin egindako bildots-janaren ostean, Trabaku Beheko tabernan. Atze-atzean eta gorengo Martzelo Mugarza. Tente eta ezkerretik eskumara: Leoncio Aranburu, Enrike Mugarza, Juan Aranburu, Txomin Narbaiza, Modesto Solozabal soinuarekin, Felix Iturriagagoitia, Patxi Urkidi, Miguel Amesti eta José Ramón Iturriagagoitia. Jarrita daude Angel San Martín pande-ruarekin, Eugenio Aranburu, Polonia Ardanza, Juli Aldalur, Jose Iturriagagoitia, ...Amesti, Isabeltxo Iturriagagoitia, M^a Angeles Agirregomezkorta, Milagros Totorikaguena eta M^a Isabel Iturriagagoitia txakurra oratzen eta panderoa eusten.

**ERMUA
1958**

Txanpan botila bi edanda, hirugarrena ere kristalezko kopetan gainezka eta nork edan faltako ez duela, pozarren ikusten dira: ezkerretik eskumara tente Luis Mari Zabala, Pedro Ceballos, Nicolás Castrillo eta Manolo Núñez. Eserita: Luis Mari Izagirre, José Mari Crespán, Elías Barajuen, Floren Gastón eta Juanjo Madinabeitia.

Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

Proba-Leku

Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42



Apirilaren 12an
Zorionak Nahia! 3 kandelatxo jada zure pasteltxoan...Jarraitu horren maitakor eta alaia izaten, ez aldatu inoiz! Muxu erraldoi bat printzesa! AMZ



Martxoaren 20an
Zorionak etxeko txikiari! Askoko maite zaitugu!



Martxoaren 29an
Zorionak Intza zure lehenengo urtebetetzean! Patxo handi bat zure familia osoaren partez eta batez ere zure ahizpa Aineren partez.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua:
drogeten@gmail.com

Gogoratu zoriondu nahi duzuenaren izen-abizena idaztea ere.

Azken eguna: **Apirilaren 18a.**



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



optika

itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

ZINEA

1etik 2ra:

"El corredor del laberinto" + "15:17 tren a París"

8tik 10era:

Zehaztu gabeko filmak

15etik 17ra:

Zehaztu gabeko filmak

22tik 24ra:

Zehaztu gabeko filmak

29tik 1era:

Zehaztu gabeko filmak

Ermua Antzokian.
Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 5:

Zehaztu gabeko filmea

Hilak 12:

Zehaztu gabeko filmea

Hilak 19:

Zehaztu gabeko filmea

Hilak 26:

Zehaztu gabeko filmea
Ermua Antzokian.
20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 1:

Zehaztu gabeko filmak

Hilak 8:

Zehaztu gabeko filmak

Hilak 15:

Zehaztu gabeko filmak

Hilak 22:

Zehaztu gabeko filmak

Hilak 29:

Zehaztu gabeko filmak

Ermua Antzokian.
17:00etan.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 13:

Haurrentzako ikuskizuna: "Go!azen 4.0", Pausokaren eskutik. 17:00 eta 19:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 6€

Hilak 14:

Haurrentzako ipuin-kontaketa ingelesez. 17:30ean. Lobiano Kultur Gunean.

Hilak 28:

Haurrentzako ipuin-kontaketa. 17:30ean. Lobiano Kultur Gunean.

DANTZA

Hilaren 15 eta 16:

Euskal Jaia: Euskal dantzak eta erromeriak. Orbe kardenalaren plazan.



MUSIKA

Hilak 27:

Kontzertua: Funambulista. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12€

Hilak 28:

Galiziako Kultur Zentroaren 50. urteurrenaren kontzertua: Luar Na Lubre. 23:00etan. Orbe kardenalaren plazan

ANTZERKIA

Hilak 20:

"Camioneta y manta", Andoni Ferreño eta Carla Hidalgorekin. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12€

ERAKUSKETA

Hilaren 16tik 29ra:

Margo erakusketa. 18etatik 20etara. Lobiano Kultur Gunean.

BESTELAKOAK

Hilaren 20tik 22ra:

Erdi aroko azoka: hainbat ekitaldi. Orbe kardenalaren plazan

Hilak 21:

Motordunen jaia: Hainbat ekitaldi. San Pelaio plazan.

Patxi López

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

**PRO
arraindegia**

**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

**Infreñu
Taberna**

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA

**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

OINAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

irale
 Hortz Klinika
 Clínica Dental
 C/ Zeharkalea, 8
 48260 Ermua, Bizkaia
 Tel: 943 17 71 34

fisioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber
 Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89
 Sexto Centenario 13,behea
 48260 ERMUA (Bizkaia)

san pelayo
 clínica dental hortz klinika
 Implanteak
 Ortodontzia
 Periodontzia
 Hortz -zuriketa / Estetika dentala
 Odontologia orokorra
 Protesiak
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS
 San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

OSASUN GIDA

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA
 - Aho eta inplante kirurgia
 - Hortzetako protesiak
 - Hortz estetika
 - Ortodontzia
 - Odontopediatria
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea
 Hortz klinika berri eta handitu dugu
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

NATURA
 Cristina García Pérez
 Belar-denda eta dietetika
 · Elikagai biologikoak
 · Terapia naturalak
 · Naturopatarekin kontsultak
 · Masajeak
 · Dietistarekin kontsultak
 · Kosmetika biologikoa
 Zeharkale 12 behea esk. · ERMUA
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

Osasun gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera

BERBETAN JARDUNALDIAK

Euskararen gaineko Gogoetak

APIRILAK

10

19:00

Hitzaldia



LOBIANO
KULTUR
ETXEAN

Nola erabili euskara modu ez sexista batean?
Amelia Barquín

LOBIANO
KULTUR
ETXEAN



Aktibazio saioa

APIRILAK

17

19:00

Ermuan, euskaraz bizitzeko prest?
Kike Amonarriz

APIRILAK

24

17:15

Game erauntsia,
bideo joko saioa



KZgunean

10-14 urte bitarteko gazteei zuzendua. Plaza mugatuak
Izena eman apirilaren 9 eta 19 bitartean euskalbirusa@gmail.com
helbidera idatziz edo watsapa bidaliz 688632874 telefonora

antolatzaileak



babeslea

